

JUSTIZIA ETA MEMORIA ETORKIZUNERAKO

Beste errepresio frankista motekin gertatu den bezala, gerraren eta errepresioaren memoriaren inguruan ari den giza mugimendu zabalari eta indartsuari esker gero eta jende gehiagok ezagutu ahal izan ditu bortxazko lanak.

Pertsona askoren ekimenak direla eta, isilpean zegoen errealitate hau ezagutzera eman da eta frankismoaren esklaboaren ahotsak, zein beren senideenak, publikoki aditu dira. Ahalegin honen emaitza dugu Igari-Bidankoze mendatean dagoen eskultura, errepide hori ireki zutenen memorian jarrita, nahiz eta oraindik beste obra asko seinalezatu gabe egon.

Justizia historikoaz ari gara, baino memoria hau, pertsona hauena, gaur egunean munduan dauden arazo larrietakoei, hau da, gerrari eta askatasun zein eskubide murrizketari, aurre egiteko baliagarria zaigu. Bizirik dagoen memoria da, gaurko eta etorkizunerako ezinbestekoa.

Testigantzak



Patrocinia Martín

(Alcalá la Real, Jaén)

Gerra oso gauza txarra da, haurrak hiltzen direlako... eta inork ez du barkamenik eskatzen, bata zein bestea hartu, atera eta hil (...) Txikia zarenean ez duzu deus ere ahazten, eta nik dena oroitzen dut. (...) Zertarako balio du gerrak? Errugabeak haurrak hil daitezten!



Andrés Millán

(BDST 6, Huescar, Granada)

Gerrak ez dira onak, boteretsuek pobreak menderatzeko baino ez dira. (...) Errugabeak dira gehien pairatzen dutenak... Bonbardaketa bat ez dute militarrek pairatzen, errugabeek baizik. Gerrak ez dira onak, orain pertsona handinahiak daude eta. Gerra batek eragiten dituen gastuekin munduko gosearekin buka daiteke, baino hori ez dute konpontzen, ezta pentsatu ere!



Frankismoaren esklaboei egindako omenaldiko manifestua

(...) Gaur, 65 urte geroago, zuen zigorraren gainean ezarritako isiltasuna hausteko hementxe gara berriro. Gogoan zaituztegu, eta horrela gure memoria, eta gure herrien zein haranen memoria ere, berreskuratzen dugu.



Pirinioetako mendi eder hauen artean, haizea aske dabilen honetan, askatasun eta edertasun hauek zuekin elkartzen gaituzte berriro. Esker aunitz, eta hurrengo artio!

Igari-Bidankoze gainean egindako omenaldia: 200ko ekainaren 19an
Egilea: Gerardo-Vissalza



Ubietaoren presoen eta beren familien omenez jarritako plaka. Pablo Olavide Unibertsitatea, Sevilla.
Egilea: Luis Vozze



Presoen lan zapalketari buruzko informazioa
Elpopul

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

3. Alanbradaz haratago

